

**Itziarren Semeak** (Mungia, 2006) taldearen bosgarren diskoak "EH Republic" du izenburua eta ezkerreko lerrokatutako ska musikaren osagai eta ezaugarriak ditu: erritmo alai eta dantzagarriak letra politikoekin nahastuta baina beti bizitzaren pozarekin bustita. Tutelajerik gabeko diskoa da eta ska-rock doinuen espontaneotasunak pasotismoaren kutsu sinbolikoekin ez du ezer jakin nahi. Alaitasunaren bidetik doan musika proposamena urrutirago doa hitzetan, eta beldurrik gabeko Euskal Herri osoa du aldarrikapen, utopia piratak eta jende ernegatu berriaren mugimendu desorekatzaileak eraikitzekotan duelako bizipozaren herria. Ska familiaren oso alboko erritmoak landu ditu diskoak. Skak, rockak, punkak, rapak eta reggaeak ematen dio homogeneousuna disko osoari. Erakarpentzen azkarreko doinuak ditu Itziarren Semeak taldeak, betiko publikoaren desirak beteko ditu baina kantuek badute indarra entzule berriak erakartzeko. Letretarako taldeak lortu duen hamaikakoa garden bezain zorrotza da, sakona eta amaitzailea, etenpuntuak edo gabe (Oihana Bartra (Companyera), Jon Maia EH Republik), Fredi Paia (Zer den bizitza?), Ibon Larrazabal (Ospa!), Arkaitz Estiballes (Apirilaren beltza), Iñaki Bengoa (Gran Circo Mundial), Mikel Goiriena eta Jone Larrinaga (Egunero alkarregaz), Onintza Enbeita (Itziarren alaba). Hamargarren urteurrena betetzeko disko esanguratsua Itziarren Semeak taldearentzat. Batzuetan laranja koska egin behar diogu zuritu nahi badugu. Batzuetan diskoa argitzeko eta zuritzeko komeni da koska egitea. Itziarren Semeak koska egin digu.

Itziarren Semeak taldearen "EH Republik" diskoa Arrasateko Shot estudioan grabatu, nahastu eta ekoiztu du Iñaki Bengoa 2017ko urtarrilean. Masterizazioa, aldiz, Azkarateko Mami Studioan egin du Jonan Ordorikak.

Jon Zubiagak, "Osoron", gitarra jo du "Ospa", "Companyera" eta "Gran Circo Mundial" abestietan. Sala Strummer-ek gitarra akustikoa jo du "Apirilaren beltza" abestian. Kepa Junkerak trikitia eta panderoa jo ditu "Apirilaren beltza" abestian. Ane Martínezek ahotsa sartu du "Apirilaren beltza" abestian. Rafa Ruedak gitarra jo du "Egunero alkarregaz" abestian. Diseinua Bo5t-ek egin du. Azaleko buru-hezurra Lubaki Grafikekoek.

**EH Republik** diskoaren 10 kantuek, amesten, eraiki edo nahiko genukeen EH Republik baten oinarriak irudikatzen ditu. Presoak etxean, indar polizialik gabe, gizon eta emakumeen arteko berdintasun eta errekonozimendua, hezkuntza eta euskararen ikastola, injustziarekin amaitu, usteldutako sistemari barre eginez eta nola ez, bizipoza!!!!

10 urte ere betetzen dira aurten lehen kontzertua eman genuenetik eta horregatik berreskuratu ditugu gure lehen ereserki izandako "Mirentxu Patxaran" eta "Itziarren Alaba", beste begirada bat taldearen izena nondik datorren gogoratzuz.

#### ATERA BESTE BAT

Diskoko kanturik "zaharrena" 2014ko neguan Argentinatik eta Txiletik etorri ondoren sortu genuen. Carlos Gardel gogoan, bertan ezagututako lagunei entzundako mozor abestietatik ateratakoa da. Kantuan kontatzen den istorioa ongietorri bat da kopa eskuan preso guztiak etxera ekartzea ospatzeko gogoarekin egindakoa.

#### OSPA!

Askotan entzun dugu Ehan Europako polizia ratorik handiena dagoela biztanleko. Segurtasun indarregatik jasandako mehatxu edo jazarpenak egunerokoa izan dira gaztaroan. Altsasuko gazteekin gertatutakoak berriro ekarri digu gogora "alde hemendik" leloa.

#### EH REPUBLIK

Zenbat aldiz itsasoari begira jesarri eta gitarra eskuan beste bizitza bat irudikatu dugu uharte batean. Doinu lasaia reggae ukituarekin. Eguneroko politikakerietatik ihesi EH REPUBLIK martxan jartzeko uharte bat erosi beharko dugu eta bere garaian piratek Karibearen eraikitako komuna libertarioak irudikatu. Hori bai, sarrera ukatzeko eskubidearekin, ergele sarrera mugatuta.

#### COMPANYERA

Izenburua katalanez idatzi dugu keinu bat bezala. Bi herri, gizon edo emakume, bikotea, elkarrekin, anai-arrebak.

#### APIRILAREN BELTZA

Iñigo Cabacasi gertatutakoa ezin da errepikatu. Poliziaren inpunitatearekin amaitzearen beharra digorrezkoa da. Hurbiletik sentitu dugun kasua da, Athleticeen jarraitzaile gara eta Indautxuko herriko tabernatik pasatzen gara zelaira goazela. Eta ezin isil gelditu, indarkeriaren monopolioa mantentzen dute estatuek.

#### GRAN CIRCO MUNDIAL

Oka egiten dugu usteldutako sistema politikoaren aurka. Plazera da san-martin eguna iritsiko zaiola txerri bakoitzari, berdinean Urdangarin, Gürtel, Strauss Kan, Fillon, Sarkozy, macro... edo Trump. Hitz estudioan idatzi genuen Iñaki Bengoarekin batera.

#### ZER DEN BIZITZA?

Diskorako sortutako azken kantua. Hasiera batean beste kutsu bat zeukan, azkarragoa, baina melodiak dantzagarriagoa egitera eraman gintuen. Hogeita hamarretik gora ditugu taldekide askok eta konturatu gara ez garea Athleticeen aurrelari izango, ezta AEBko presidentea. Bai, bizitza kaka zaharra izan daiteke, aspergarria, tristea... Bakoitzak jakin edo ikasiko du zer den bizitza edo nora doan. Dantzan, kantuan eta alaitasunarekin azkarrago doa dena. Hitzak Fredi Payak egin ditu, bizitzaren filosofian Ehan dugun handienetako bat.

#### EGUNERO ALKARREGAZ

Mungiako Larramendi ikastolan hezitakoak gara taldekideetako asko -Ibon, Manex, Jebi eta lehen saxofoia jotzen zuen Irkus-. Ibilaldia aurten Mungian ospatzen denez kantua egitea proposatu ziguten. Adin guztietarako kantua egin nahi izan dugu gure ohiko ska ukituak rock zapoerarekin uztartuz.

#### MIRENTXU PATXARAN 2.0

Lehen ereserki birmoldatu dugu. 2016an kaleratu genuen 10 urte bete zirelako Mungiako lokaletan lehen aldiz elkartu ginenetik, aurten lehen kontzertua eman genueneko urteurrena dugu apirilean eta diskoan sartu nahi genuen "Mirentxu" berria, taldea aldatu denaren adierazgarri.

#### ITZIARRREN ALABA

Urteurrenak jatorrira begiratzea ekarri gaitu eta hasieratik geneukan Pantxoa eta Peioren Itziarren Semea kantua geure egiteko gogo. Izena bertatik hartu ondoren, gaur egungo beste erritmo batzuk eman nahi genizkion: gipsy balkan, rap edo reggetoi pixka bat uztartuz. Aldi berean, herri honetan borrokatu duten eta tortura sufritu duten emakumeak gogoan izan nahi genituen.

#### Itziarren Semeak

Manex Altuna: gitarra

Ibon Altuna: ahotsa

Jebi Ormaza: baxua

Alain Egiguren: bateria

Ivan Zapata: saxoa

+

John Kaiman: bombardinoa eta tronboi baxua

Mizel Zamora: tronpeta

ritxi aizpuru + itziarren semeak (2017ko martxoaren 16a)

